


Asmari buruzko Azkarra Klinikoaren Gidaliburua



ASMAREN GIDA AZKARRA: HELDUAK ETA 5 URTETIK GORAKO HAURRAK

Diagnostikoa eta sailkapena helduengan eta 5 urtetik gorako haurren




Asmaren larritasunaren sailkapena tratamendua hasi aurretik (GINA)
Noizbehinkako asma arina
Sintomak: astean behin baino gutxiago Krisiak: arinak Gaueko sintomak: ≤2 aldiz hilean FEV1 edo GAF ≥%80 teorikoa FEV1 edo GAF aldakortasuna < %20
Asma arin iraunkorra
Sintomak: gutxienez astean behin baina ez egunero Krisiak: jarduera muga dezakete eta loari eragin Gaueko sintomak: > 2 aldiz hilean FEV1 edo GAF ≥%80 teorikoa FEV1 o GAF aldakortasuna %20-%30
Moderatu iraunkorra
Eguneko sintomak Krisiak: jarduerari eta loari eragin diezaiokete Gaueko sintomak: astean behin baino gehiago FEV1 edo GAF: %60-80 teorikoa FEV1 edo GAF aldakortasuna: > %30
Larri iraunkorra
Sintomak: egunero Krisiak sarritan Gaueko sintomak sarritan FEV1 edo GAF ≤%60 teorikoa FEV1 edo GAF aldakortasuna: > %30

Haurrengan baliagarriagoa izan daiteke krisialdi kopuruaren arabera sailkapena: boladakako asma (maiztasun txikiarekin nahiz haundiarekin) edo iraunkorra (ikus algoritmoa: haurra < 5 urte)

Asmaren tratamendua helduengan eta 5 urtetik gorako haurrengan

- Asmaren tratamendua **mailaz mailakoa** da.
- Paziente bakoitzarentzat **egokientzat** jotzen den mailan hasi behar da tratamendu hori.
- Horren helburua kontrol azkarra lortzea eta kontrol egoki bat mantentzea da, maila **igoz** beharrezkoa denean eta maila **jaitsiz** kontrola egokia denean.

Asmaren tratamendua helduengan eta 5 urtetik gorako haurrengan




Gomendatutako GKI dosiak

	Budesonida	Fluticasona	Beclometasona
Helduak			
Asma arin edo moderatua: dosi maila	200-800	100-500	200-1000
Hasierako dosia eta mantentze dosi orientagarria	400	200	400-500
Gehitutako terapia: GKI bidez kontrola desegokia bada, dosia:	400	200	400-500
ILBA sartzeko gehienezko dosia	800 arte	500 arte	1000 arte
Dosi handia asma larrian (gehienezko dosia)	>800 (1600)	>500 (1000)	>1000 (2000)
Haurrak			
Asma arin edo moderatua: dosi maila	100-400	100-200	100-500
Hasierako dosia eta mantentze dosi orientagarria	200	100	200
Gehitutako terapia: kontrola desegokia bada, dosia:	200	100	200
ILBA sartzeko gehienezko dosia	(400 arte)	(200 arte)	(500 arte)
Dosi handia asma larrian (gehienezko dosia)	>400 (800)	>200 (500)	>500 (1000)

GIDA AZKARRA: 5 URTETIK BEHERAKO HAURRAK

Asmaren diagnostikoa 5 urtetik beherako haurrengan



Asmaren sailkapena haurrengan (Australiako PKGera egokitua)

Boladakako asma noizbehinkakoa

Asma-bolada isolatuak infekzio birikoek eraginda
 Bolada baten eta beste baten artean 6-8 aste igarotzen dira
 Sintomarik gabe boladen artean
 Biriketako funtzio egokia

Boladakako asma sarria

Boladen arteko denbora-tartea 6-8 aste baino laburragoa da
 Boladak normalean neguan gertatzen dira
 Boladen arteko gutxieneko sintomak
 Ariketa handiak egitean sintomak ager ditzakete
 Biriketako funtzio egokia

Asma iraunkorra

Aurreko kategorietakoak bezalako asma-boladak izateaz gain, krisialdian artean sintomak agertzen dituzte egun gehienetan (eztulak edo sibilantziek loari eragiten diote, sintomak ariketarekin, bularraldean estuasuna)
 Eraginaren maila oso aldakorra izan daiteke (sintoma sarri baina arinetatik hasi eta eguneroko jarduna nabarmenki eralda dezaketen sintometaraino, biriketako funtzioari ere eraginez).

Asmaren tratamendua 5 urtetik beherako haurrengan

- Asmaren tratamendua **mailaz mailakoa** da.
- Paziente bakoitzarentzat **egokientzat** jotzen den mailan hasi behar da tratamendu hori.
- Horren helburua kontrol azkarra lortzea eta kontrol egoki bat mantentzea da, maila **igoz** beharrezkoa denean eta maila **jaitsiz** kontrola egokia denean.

Mailaz mailako tratamendua 5 urtetik beherako haurrengan

Ekintza laburreko beta-adrenergikoak premiaren arabera



GKI SARTZEA (dosia taularen arabera):
boladakako asma sarria, edo 3 bolada baino gehiago azken urtean + arrisku-faktoreak, edo sintoma iraunkorrak



GEHITUTAKO TERAPIA GKI bidezko kontrola nahikoa ez bada (dosia taularen arabera).
- **Iraupen luzeko beta-adrenergikoak (ILBA)**
Ordezko aukera: antileukotrienoak
- Kontrola desegokia bada, espezialista batekin batera jarraipena egitea gomendatzen da.



GKI dosi handiak (taularen arabera)
Beste botika bat gehitu (antileukotrienoak o ILBA gehitu ez badira, teofilinak)

Gomendatutako GKI dosiak

	Budesonida	Fluticasona	Beclometasona
Ohiko dosiaren neurria	100-400	100-200	100-500
Hasierako dosia eta mantentze-dosi orientagarria	200	100	200
<u>Gehitutako terapia</u>			
Kontrola desegokia bada: (gehitutako terapia sartzeko gehienezko dosia)	200 (400 arte)	100 (200 arte)	200 (500 arte)
Dosi handia asma larrian (gehienezko dosia)	>400 (800)	>200 (500)	>500 (1000)

